

Lan akademiko bat egiteko estilo-liburua

Dokumentuaren bertsioa: 1.0
2026ko iraila

Laburpena

Estilo-liburu hau Mondragon Unibertsitatean garatutako lan akademikoen idazketa errazteko diseinatuta dago. Lehenengo kapituluak letra mota, marjinak eta aurrez definitutako estiloak deskribatzen dira. Ondoren, kapituluak, irudiak, taulak, ekuazioak eta erreferentzia bibliografikoak automatikoki zenbakitzeko jarraibideak ematen dira, eta baita elementu horien erreferentzia gurutzatuak sortzeko ere. Hirugarren kapituluak, dokumentua behar bezala egituratzeko, ataletan banatzeko, eta goiburuak, orri-oinak eta eranskinak sartzeko jarraibideak eskaintzen dira. Ondoren, dagoen dokumentu batetik Word txantiloia bat sortzeko behar diren urratsak azaltzen dira. Azkenik, bi eranskin gehitzen dira, dokumentuaren material osagarria behar bezala prestatu eta antolatzekeo jarraibide espezifikoak eskaintzen dituztenak.

Gako-hitzak

Estilo-liburua, txantiloia, lan akademikoak, Mondragon Unibertsitatea.

Inpaktua Garapen Jasangarriko Helburuetan

Atal honetan, lan akademikoak eragina duen Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) zerrendatzen dira, helburuak eta xedeak soilik zehaztuz, azalpen osagarririk eman gabe.

Resumen

Este manual de estilo está diseñado para facilitar la redacción de trabajos académicos desarrollados en Mondragon Unibertsitatea. En el primer capítulo se describen el tipo de letra, los márgenes y los estilos predefinidos. A continuación, se proporcionan instrucciones para la numeración automática de capítulos, figuras, tablas, ecuaciones y referencias bibliográficas, así como para la creación de referencias cruzadas a estos elementos. En el tercer capítulo se ofrecen pautas para estructurar el documento, incluyendo la división en secciones y la incorporación de encabezados, pies de página y anexos. Posteriormente, se explican los pasos para crear una plantilla en Word a partir de un documento existente. Finalmente, se incluyen dos anexos que ofrecen pautas específicas para elaborar y estructurar correctamente el material complementario del documento.

Palabras clave

Manual de estilo, plantilla, trabajos académicos, Mondragon Unibertsitatea.

Impacto en los Objetivos de Desarrollo Sostenible

En esta sección se enumeran los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) en los que incide el trabajo académico, especificando únicamente los objetivos y las metas, sin incluir explicaciones adicionales.

Abstract

This style guide is designed to facilitate the writing of academic works developed at Mondragon Unibertsitatea. The first chapter describes the recommended fonts, margins, and predefined styles. Next, detailed instructions are provided for the automatic numbering of chapters, figures, tables, equations, and bibliographic references, as well as for creating cross-references to these elements. The third chapter offers guidelines for structuring the document, including the division into sections and the inclusion of headers, footers, and appendices. Subsequently, the steps required to create a Word template from an existing document are explained. Finally, two appendices are included, providing specific guidance on how to prepare and organize the supplementary material of the document.

Keywords

Style guide, template, academic works, Mondragon Unibertsitatea.

Impact on the Sustainable Development Goals

This section lists the Sustainable Development Goals (SDG) addressed by the academic work, specifying only the objectives and targets, without including any additional explanations.

Edukien aurkibidea

1. kapitulua	Estilo-liburuaren ezaugarri orokorrak	1
1.1.	Atariko ohar garrantzitsuak	1
1.1.1.	Microsoft Word bertsioa	1
1.1.2.	Hizkuntza konfiguratzea Microsoft Word-en	1
1.1.3.	Kapitulu bakoitzaren lehen orrialdea	2
1.2.	Letra-mota	3
1.3.	Marjinak eta orri zuriak	3
1.4.	Dokumentuaren estiloak	4
1.4.1.	Normala	5
1.4.2.	Lehen paragrafoa	5
1.4.3.	1. izenburua, 2. izenburua, 3. izenburua eta 4. izenburua	6
1.4.4.	5. izenburua, 6. izenburua, 7. izenburua eta 8. izenburua	6
1.4.5.	Irudia eta irudi-oina	6
1.4.6.	Taula eta taularen goiburua	6
1.4.7.	Aipamen handia	7
1.4.8.	TOC izenburua	7
1.5.	Kanpo-aplikazioekin sortutako irudiak	7
2. kapitulua	Elementu eta erreferentzia gurutzatuak zenbakitu	9
2.1.	Kapitulu, atal eta azpiatalen automatikoki zenbakitu	9
2.2.	Aurkibidea edo edukien taula	10
2.3.	Irudien erreferentzia gurutzatua	10
2.4.	Taulen erreferentzia gurutzatua	12
2.5.	Irudien aurkibidea eta taulen aurkibidea	13
2.6.	Aurkibide alfabetikoa	14
2.7.	Ekuazioak eta ekuazioen erreferentzia gurutzatua	14
2.7.1.	Ekuazioak idaztea	14
2.7.2.	Ekuazioak zenbakitzea	15
2.7.3.	Ekuazioen erreferentzia gurutzatua	15
2.8.	Aipamenak, erreferentzia bibliografikoak eta bibliografia	16
3. kapitulua	Dokumentuaren egituraketa	17
3.1.	Sekzioak	17
3.2.	Goiburuak	18
3.3.	Orri-oinak	21
3.4.	Eranskinak	21
3.5.	Lan akademikoaren egitura eta kapituluak	21
3.6.	Dokumentu bat amaitu aurretik eman beharreko azken urratsak	22
4. kapitulua	Txantiloi bat sortzea	23

4.1.	Txantilo bat sortzea.....	23
4.2.	Gordetako txantilo bat erabiltzea	24
Bibliografia		25

Eranskinen zerrenda

A eranskina	Eranskinen egitura eta lanketa	A-1
B eranskina	Eranskinen aurkibideak sortzea	B-1

Irudien aurkibidea

1.1. irudia. “Hizkuntza lehentasunak” atalera sartu “Berrikusi” fitxatik.....	2
1.2. irudia. “Hizkuntza lehentasunak” menua dokumentuaren hizkuntza gogokoena konfiguratzeko.	2
1.3. irudia. Testu bati “1. izenburua” estiloa aplikatzen zaionean, letra solte bat agertzen da lehen lerroan.	3
1.4. irudia. Letra soltearen aurretik espazio bat gehitzean, izenburua behar bezala konfiguratuta geratzen da.....	3
1.5. irudia. Dokumentuaren orrialdea konfiguratzeko koadroaren xehetasuna.	4
1.6. irudia. (a) Ondo egindako grafikoaren adibidea, testuak eta zenbakiak erraz irakurtzeko modukoa. (b) Gaizki egindako grafikoaren adibidea, iturria eta tamaina egokiak ez direnean.....	8
2.1. irudia. Kapituluak, atalak eta azpiatalak zenbakitzeko erabiltzen den maila anitzeko zerrenda.	10
2.2. irudia. Irudi bati izenburua txertatzeko menua.....	11
2.3. irudia. Erreferentzia gurutzatua txertatzeko menua.....	11
2.4. irudia. “Editatu eremua” menua: “Formatua” atalean “Minuskulak” aukeratu behar da.	12
2.5. irudia. Taula bati izenburua txertatzeko menua.....	13
2.6. irudia. Irudien aurkibidea sartzeko menua.	13
2.7. irudia. Zenbaki bat eta haren unitatea lerro desberdinetan bereiz ez daitezen, espazio zatiezin bat (“Ktrl + Shift + Espazioa”) erabiltzearen adibidea.....	15
2.8. irudia. Ekuazioei erreferentzia gurutzatuak txertatzeko menua; “Epigrafe osoari” aukeratu behar da parentesiak agertzeko.....	16
3.1. irudia. Orria konfiguratzeko menua, sekzio bat orri bakoitian has dadin.	18
3.2. irudia. “Aukerak” menua, kapitulu baten lehen orrialdea eta hurrengoak desberdinak izan daitezen erabiltzen dena.....	18
3.3. irudia. “Nabigazioa” menua; goiburua ez zaio aurreko atalari estekatu behar.....	19
3.4. irudia. “Txertatu” menuan “Eremua” “Zati bizkorra” gehitu.	19
3.5. irudia. “StyleRef” “1. izenburua” hautatzeko “Eremua” menua.....	20
3.6. irudia. Goiburuaren posizioa eta orri-oina finkatzeko erabiltzen den “Posizioa” menua.....	20
3.7. irudia. Orrialde-zenbakiei formatua emateko menua.	21
4.1. irudia. Word-en txantilo berri bat sortzea.	23
4.2. irudia. Gordetako txantilo batean oinarritutako dokumentu bat sortzea.	24

Taulen aurkibidea

1.1. taula. Estilo nagusiak.....	5
1.2. taula. Taula baten adibidea: seihileko proiektu batzuen ebaluazioa.	7

Sinbolo eta laburdurak

Sinboloak

A : oszilazioaren anplitudea.

δ : desfase-angelua.

ω : maiztasun angeluarra.

Laburdurak

GBL: Gradu Bukaerako Lana.

GJH: Garapen Jasangarriko Helburuak.

MBL: Master Bukaerako Lana.

PBL: Project-Based Learning.

PDF: Portable Document Format.

TOC: edukien taula.

1. kapitulua

Estilo-liburuaren ezaugarri orokorrak

1.1. Atariko ohar garrantzitsuak

1.1.1. Microsoft Word bertsioa

Estilo-liburu hau Microsoft Word-en mahaigaineko bertsioarekin erabiltzeko diseinatuta dago, ez web-bertsioarekin. Mahaigaineko bertsioak dokumentuen edizio profesionalagoa ahalbidetzen du, eta tresna indartsuagoak eskaintzen ditu, zenbait pertsonak aldi berean editatzeko aukera kolaboratiboak barne.

Kontutan izan behar da Word-eko menuak bistaratzeko moduan ezberdintasun txikiak egon daitezkeela pertsona bakoitzak instalatuta duen bertsioaren, konfigurazioaren edota pertsonalizazioaren arabera. Dokumentu hau Office 365 2026 bertsioarekin sortu da.


Laguntza edo informazio gehiago behar izanez gero, edota ekarpen edo iradokizunekin laguntzeko jarri harremanetan lanakademikoak.mgep@mondragon helbidearekin.

1.1.2. Hizkuntza konfiguratzea Microsoft Word-en


Mondragon Unibertsitateak txantiloi espezifikokoak ditu lan akademikoak hainbat hizkuntzatan idazteko, estilo-liburu honetan oinarrituta. Txantiloi horietako bakoitzak behar bezala funtziona dezan, Microsoft Word-ek txantiloia hizkuntza berean egon behar du konfiguratuta. Hala ez bada, kapituluaren goiburua gaizki konfiguratuta agertuko da, eta, gainera, inkoherentziak gerta daitezke irudiak eta beste elementu automatiko batzuk zenbakitzean eta izendatzean.

Word-en konfigurazio-hizkuntza aldatzeko, sartu “Berrikusi” menura eta aukeratu “Hizkuntza” → “Hizkuntza hobespenak” (1.1. irudia). Irekitzen den leihoan, egiaztatu nahi duzun hizkuntza goiko hizkuntza-zerrendan (1.2. irudia) agertzen den. Erabilgarri badago, hautatu eta “Ezarri gogoko gisa” botoiarekin markatu behar da; bestela, “Instalatu bistaratze-hizkuntza gehigarriak Office.com-etik” aukeran klik eginez gehitu behar da.

Azkenik, ortografia- eta gramatika-zuzentasunak behar bezala funtziona dezan, berrikusteko hizkuntza hemendik ezarri behar da: “Berrikusi” → “Hizkuntza” → “Zuzentzeko hizkuntza ezarri...”.



1.1. irudia. "Hizkuntza lehentasunak" atalera sartu "Berrikusi" fitxatik.



1.2. irudia. "Hizkuntza lehentasunak" menua dokumentuaren hizkuntza gogokoena konfiguratzeko.

1.1.3. Kapitulu bakoitzaren lehen orrialdea

Estilo-liburu honetan, kapitulu bakoitza "X. kapitulua" etiketarekin hasten da, eta, ondoren, hurrengo lerroan, dagokion izenburua agertzen da. Horri esker, errazagoa da kapitulu bakoitzaren hasiera identifikatzea.

Hala ere, Microsoft Word-ek ez du metodo estandarrik ematen "X Kapitulu" eta izenburua bi lerro bereizitan agertzeko. Beraz, eskuzko esku-hartzea eskatzen duen irtenbide bat aplikatu da.

Zehazki, testu bati “1. izenburua” estiloa aplikatzean, 1.3. irudian ageri den emaitza lortzen da, non lehen errenkadak “X. kapitulua” baitu, tabuladore bat, eta kapituluaren izenburuaren lehen letrak, berriz, lerroaren amaieran.

1. kapitulua → **E**
stilo-liburuaren ezaugarri orokorrak¶

1.3. irudia. Testu bati “1. izenburua” estiloa aplikatzen zaionean, letra solte bat agertzen da lehen lerroan.

Arazo hau konpontzeko, letra honen aurretik eskuz espazio bat gehitu behar da. Hori egitean, kapituluaren zenbakia eta izena behar bezala konfiguratuta geratuko dira, 1.4. irudian agertzen den bezala.

1. kapitulua → **.**
Estilo-liburuaren ezaugarri orokorrak¶

1.4. irudia. Letra soltearen aurretik espazio bat gehitzean, izenburua behar bezala konfiguratuta geratzen da.

1.2. Letra-mota

Estilo-liburu honetan, testuaren gorputzerako Cambria letra-tipoa erabiltzea gomendatzen da, eta izenburuetarako, berriz, Arial letra-tipoa. Arrazoi nagusi hauengatik aukeratu dute Cambria [1]:

- Cambria da Cambria Math-ekin, ekuazioak idazteko Microsoft Word-en tipografia lehenetsiarekin, hobekien konbinatzen duen iturria, txosten tekniko-zientifikoetarako bereziki egokia egiten duena.
- Cambriak espazio eta proportzio oso uniformeak ditu. Hain zuzen ere, pantailan garbi-garbi ikusteko eta tamaina txikitan inprimatzen denean erraz irakurtzeko diseinatu zen .


Letra-tamaina 11 puntukoa da, paperean eroso irakurri ahal izateko bezain handia eta orri bakoitzean informazio-kantitate egokia izateko bezain txikia.

Alternatiba gisa, beste konbinazio tipografiko batzuk erabil daitezke, hala nola Palatino Linotype testuaren gorputzerako, Gill Sans MT edo Segoe UI izenburuetarako eta Asana Math ekuazioetarako. Horiek aplikatzeko, aldeztu aurretik Asana Math iturria deskargatu eta instalatu behar da. Instalatu ondoren, “Ekuazioa” - “Txertatu ekuazio berria” - “Bihurketak” menutik gehitu behar da.

1.3. Marjinak eta orri zuriak

Goiko eta beheko marjinak 2,5 cm-koak dira; barnekoak eta kanpokoak, berriz, 2 cm-koak. Horretarako, lehenengo, Word-eko “Antolaketa” fitxan klik egin behar da, gero, “Marjinak” komandoan, eta, azkenik, “Marjina pertsonalizatuak” komandoan. Hori egitean, 1.5. irudian erakusten den koadroa irekitzen da, eta hor adierazi behar da marjina horiek dokumentu osoari aplikatzen zaizkiola.

Dokumentua bi aldeetatik inprimatu eta koadernatu behar bada, orrialdeak marjina simetrikoak izango ditu, eta 0,5 cm-ko marjina gehigarria utziko da koadernaketarako. Hori da egokiena koadernatu nahi den dokumentu formal baterako. Txantiloi hau koadernaketarako marjinarik gabe konfiguratu da, eta hori da gomendagarriena dokumentua ordenagailu baten pantailan kontsultatuko bada.



1.5. irudia. Dokumentuaren orrialdea konfiguratzeko koadroaren xehetasuna.

Dokumentuaren kapitulu bakoitzak orrialde bakoitian hasi behar du. Atalean 3.1 azalduko den bezala, hori lortzeko, “orrialde bakoitia” motako “sekzio-jauziak” txertatu behar dira kapituluaren artean. Jauzi horiek orri zuriak gehitzen dituzte inprimatzean, baina ez pantailan bistartzean.

1.4. Dokumentuaren estiloak

Dokumentu honen estilo nagusiak hauek dira: “Normala”, “Lehen paragrafoa”, “1. izenburua”, “2. izenburua”, “3. izenburua”, “4. izenburua”, “Irudia”, “Epigrafea: Irudiaren oina”, “Taula”, “Taula-burua”, “Aipu nabarmena” eta “TOC izenburua”. Gainera, eranskinetan estilo osagarri hauek erabiltzen dira: “5. izenburua”, “6. izenburua”, “7. izenburua” eta “8. izenburua” (Ikus 1.1. taula).

1.1. taula. Estilo nagusiak.

Estiloak		
Zerekin lotuta	Atal nagusian	Eranskinetan
Testuak	Normala	Normala
	Lehen paragrafoa	Lehen paragrafoa
	1. kapitulua	A eranskina
	1. izenburua	5. izenburua
	1.1. 2. izenburua	A.1. 6. izenburua
	2. izenburua	6. izenburua
	1.1.1. 3. izenburua	A.1.1. 7. izenburua
	3. izenburua	7. izenburua
Irudiak	1.1.1.1. 4. izenburua	A.1.1.1. 8. izenburua
	4. izenburua	8. izenburua
	Aipamen handia	Aipamen handia
	TOC izenburua	TOC izenburua
	Irudia	Irudia
	Epigrafea: Irudiaren oina	Epigrafea: Irudiaren oina
	Epigrafea, Irudiaren oina, Pie de figura	Epigrafea, Irudiaren oina, Pie de figura
Taulak	Taula	Taula
	Taularen goiburua	Taularen goiburua

Jarraian, estilo bakoitzaren ezaugarriak eta erabilera deskribatuko ditugu.

1.4.1. Normala

“Normal” estiloa honela definituta geratzen da:

- Iturria: Cambria, 11 pt.
- Paragrafo estiloa: justifikatua.
- Koska lehen lerroan: 0,6 cm.
- Lerroartea: anizkoitza, 1,3 lerro.
- Atzeko tarte: 4 pt.
- Linea alargunen eta zurtzen kontrola: aktibatuta.
- Dokumentuaren hizkuntza lehenetsia erraz alda daiteke estilo arrunta aldatuz eta dagokion aukera hautatuz: euskara, gaztelania (Espainia), ingelesa (Estatu Batuak), ingelesa (Erresuma Batua), frantsesa (Frantzia), etab.

1.4.2. Lehen paragrafoa:

Paragrafo arrunt batean ohikoa da lehen lerroa odoletan egotea, baita izenburu baten ondoren ere. Hala ere, edozein tituluren osteko lehen paragrafoan koska kentzeko joera dago azken aldian. Estilo-liburu honetan, azken aukera hori hautatu da; beraz, izenburu baten ondorengo paragrafo orok “Lehen paragrafoa” estiloan konfiguratuta egon behar du.

Hori horrela izan dadin, titulu guztien ondorengo estilo lehenetsia “Lehen paragrafoa” da. Era berean, “Lehen paragrafoa”-ren ondorengo estilo lehenetsia “Normala” da. Hala ere, kontuan hartu behar da ezen, lehenengo paragrafoaren erdian ENTER tekleatuz gero, amaieran tekleatu beharrean, estiloa ez dela aldatzen eta “Lehen paragrafoan” mantentzen dela; beraz, ondoren eskuz aldatu beharko litzateke.

Aldiz, paragrafo guztiek koska izatea nahi bada, errazena “Lehen paragrafoa” estiloa aldatzea da, lehen lerroan 0,6 cm-ko koska gehituz.

Dokumentu bateko paragrafo guztiak estilo egokian konfiguratuta daudela ziurtatzeko, gomendagarria da bukatutzat eman aurretik azken errepasoa egitea (ikus atala3.6).

1.4.3. 1. izenburua, 2. izenburua, 3. izenburua eta 4. izenburua

Edukien aurkibidea edo taula automatikoki zuzen sortzeko, beharrezkoa da kapituluaren izenburuak “1. izenburua” estiloarekin konfiguratzea, kapitulu bakoitzeko atalen izenburuak “2. izenburua” estiloarekin eta azpiatalen izenburuak “3. izenburua” estiloarekin. Beste maila bat gehi daiteke “4. izenburua” estiloa erabiliz, baina ez da gomendatzen dokumentuan maila gehiago sartzea. Tituluatarako iturria Arial da, sans serif tipografia bat, Cambriarekin ondo harmonizatzen duena.

1.4.4. 5. izenburua, 6. izenburua, 7. izenburua eta 8. izenburua

Lau estilo horiek eranskinetan bakarrik erabiltzen dira, eta, hierarkiari dagokionez, “1. izenburua” eta “4. izenburua” estiloen baliokideak dira. Ez dira eranskinetatik kanpo erabili behar, “1. izenburua” eta “4. izenburua” estiloak eranskinetan erabili behar ez diren bezala. Banaketa horrek dokumentuaren egitura koherentea bermatzen du, eta eranskinetarako eduki-indize espezifiko bat sortzeko aukera ematen du.

1.4.5. Irudia eta irudi-oina

Irudiak dokumentuan itsatsi behar dira, “Testuarekin bat” aukeraren bidez. Irudia zentratuta geratzen dela eta horren aurretik behar adinako espazioa dagoela ziurtatzeko, “Figura” estiloa erabiliko da irudia kokatuta geratzen den lerroan. Aurrerago ikusiko dugunez, “Erreferentziak – Sartu epigrafea” tresna erabiliz zerrendatu behar dira irudiak. Hori egitean, automatikoki sortzen da irudi-oina, eta “Epigrafea: Irudiaren oina” estiloan konfiguratuta behar da. Estilo horrek bermatzen du irudi-oina zentratuta geratzea eta tarte nahikoa izatea paragrafo honen eta hurrengoaren artean.

1.4.6. Taula eta taularen goiburua

Testua taula batean bertikalki zentratuta gera dadin, beharrezkoa da paragrafoaren ondoren tarterik ez egotea. Horretarako, “Taula” estiloa erabiltzen da, normala bezalakoa, baina atzeko tarterik gabe. Lerrokatze horizontalari dagokionez, “Taula” estiloari esker, testua gelaxka bakoitzaren erdian lerrokatuta agertzen da lehenespenez. Hala ere, dokumentuaren egileak erabakiko du gelaxka bakoitzean testua horizontalki nola lerrokatu.

Aurreko kasuan bezala, taulak zerrendatzean, taula bakoitzaren goialdean goiburu bat sortzen da automatikoki. Lehenespenez, goiburu hori “pigrafea: Irudiaren oina” estiloarekin konfiguratuta dago. Estilo hori eskuz aldatu behar da, eta “Taularen goiburu” bihurtu. Hala, aurreko paragrafoaren eta taularen goiburuaren artean tarte nahikoa dagoela ziurtatzen dugu, 1.2. taula. irudian ikus daitekeen bezala.

Bai tauletan, bai dokumentuko beste elementu batzuetan, kolore beltza eta kolore instituzionalen paleta erabiltzea gomendatzen da, bi tonuz osatua: Pantone 316C (Gorria: 0; berdea: 72; Urdina: 81) eta Pantone 7467C (Gorria:0; Berdea:163; Urdina:173). Dokumentuaren koloreak “Diseño” “Colores” menutik pertsonaliza daitezke. 1.2. taulan Pantone 316C erabili da.

1.2. taula. Taula baten adibidea: seihileko proiektu batzuen ebaluazioa.

Proiektu-taldea	Estiloa	Edukia
PBL 1	A	B+
PBL 2	H	C
PBL 3	A	A

1.4.7. Aipamen handia

Batzuetan, komenigarria izan daiteke paragrafo bat modu singularrean azpimarratzea. “Aipamen handia” estiloa erabiliz egiten da hori. Hona hemen adibide bat:

PBL 1 eta PBL 3 taldeek txantilo hori erabili dute proiektuaren txostena idazteko eta A kalifikazioa lortu dute estiloan. PBL 2 taldeak, ordea, ez du maila profesionalean lan egiten eta atal hau bertan behera utzi du.

1.4.8. TOC izenburua


“TOC izenburua” estiloa edukien taulako izenburuetarako, laburpenerako eta dokumentuaren gainerako indizeetarako erabiltzen da.

1.5. Kanpo-aplikazioekin sortutako irudiak


Kanpo-aplikazioekin sortutako irudiak Cambriarekin landu behar dira, edo, bideragarria ez bada, iturri horren ahalik eta antzekoena den letra-tipoarekin. Oso garrantzitsua da ziurtatzea irudietako letraren tamaina erraz irakurtzeko bezain handia dela.

Ondoren, Matlab-ekin egindako bi grafiko berdin-berdinak agertzen dira. 1.6. irudian (a) Cambria erabili da, eta letraren tamaina doitu egin da testuak irakurgarriak izan daitezen, baina ez dokumentuaren gorputzaren testua baino handiagoak. Halaber, aldagaiak letra etzanez idatzita daude, eta unitateak letra etzanik gabe, arauak dioten bezala. Aitzitik, 1.6. irudian (b), Matlab-en letra-tipo lehenetsia erabili da, dokumentuaren gaineraketik oso desberdina; ez da doitu letraren tamaina, eta,

beraz, testu batzuk ezin dira behar bezala irakurri, eta aldagaiak ez dira letra etzanez agertzen. Bi grafikoen arteko aldea oso esanguratsua dela ikus daiteke.



(a)



(b)

1.6. irudia. (a) Ondo egindako grafikoaren adibidea, testuak eta zenbakiak erraz irakurtzeko modukoa. (b) Gaizki egindako grafikoaren adibidea, iturria eta tamaina egokiak ez direnean.

Garrantzitsua da adieraztea grafiko bakoitzeko ardatzek behar bezala titulatura egon behar dutela, eta unitateak ezin direla falta. Era berean, kasuaren arabera, grafikoa aberasteko egokitzat jotzen diren elementuak gehituko dira: legendak, izenburuak, etab. Alde batera utzita kontzeptualki eskuz sortzen diren elementuak (bozetoak, zirriborroak, etab.), dokumentuan txertatzen diren grafikoek eta eskemek ezingo dute, inolaz ere, eskuz eginda egon.

Word-en txertatzean grafikoaren kalitatea zaintzeko, MATLABetik edo SVG (*Scalable Vector Graphics*) formatuko beste programa batzuetatik esportatzea gomendatzen da, eta dokumentuari zuzenean formatu horretan eranstea. Aldiz, grafikoak bit-mapako irudi gisa txertatuko balira, bereizmen mugatua izango lukete, eta pixelatuta ikusiko lirateke zabaltzean.


2. kapitulu

Elementu eta erreferentzia gurutzatuak zenbakitu

2.1. Kapitulua, atal eta azpiatalen automatikoki zenbakitu

Txantilo honetan, kapituluak, atalak eta azpiatalak “1. izenburua”, “2. izenburua”, “3. izenburua” eta “4. izenburua” estiloen bidez zenbakituta daude, eta tresna-barrako “Hasiera” → “Estiloak” menuan aurki daitezke. Hauek erabiltzea gomendatzen da, baina arrazoiren batengatik zenbaki hori aldatu nahi bada, “Hasiera” → “Paragrafoa” menura joan behar da, eta “Maila anitzeko zerrenda” aukeran klik egin, nahi den aukera hautatuta (2.1. irudia). Dokumentu honetan, 2.1. irudian agertzen den maila anitzeko zerrenda definitu da, eta ezaugarri hauek ditu:

- 1. mailan, “Kapitulu” hitza agertzen da kapitulu zenbakiaren aurretik. Hitz hori erraz alda daiteke beste hizkuntza batzuetara, “Definitu maila anitzeko zerrenda berria” aukeran sartuz.
- 2., 3. eta 4. mailetan puntu bana sartu da atal edo azpiatal zenbakiaren atzetik.



2.1. irudia. Kapituluak, atalak eta azpiatalak zenbakitzeko erabiltzen den maila anitzeko zerrenda.

2.2. Aurkibidea edo edukien taula

Dokumentuaren aurkibidea edo edukien taula txertatzeko (proiektuaren laburpenaren ondoren dago), “Erreferentziak” menura joan behar da, eta “Edukien aurkibidea” aukeran klik egin.

Edukien taularen izenburuarentzat berariazko estilo bat dago, “TOC izenburua” izeneko. Laburpenaren izenburuan estilo hori bera erabiltzea gomendatzen da, bi atalek formatu uniformeak izan dezaten.

Bibliografia atala baldin badago, “1. izenburua” estiloa izan behar du, baina aurretik “X. kapitulua” izena jarri gabe (eskuz ezabatu behar da). Hala, dagokien mailan sartzen da edukien taula.


2.3. Irudien erreferentzia gurutzatua

Dokumentuan irudi berri bat sartzeko, prozedura honi jarraitzea gomendatzen da:

- Itsatsi irudia dokumentuan edo txertatu “Txertatu” menutik.
- Esleitu irudiari “Irudia” estiloa.
- Egin klik eskuineko botoiarekin irudiaren gainean, eta, ondoren, aukeratu “Sartu epigrafea”. Urrats hori ezinbestekoa da dokumentuan irudia erreferentziatu ahal izateko. 2.2. irudian


azaltzen den moduko menu bat agertuko da. Etiketa atalean “Irudia” agertzen ez bada, “Etiketa berria” aukeran klik egin beharko da hura sortzeko. Gainera, irudi bati erreferentzia egiten zaion lehen aldia bada, “Numerazioa” azpimenuan sartu behar da, kapituluaren zenbakia izenburuko etiketan sartzeko eta puntu bat aukeratzeko bereizle gisa, kapituluaren zenbakiaren eta irudikoaren artean (Berez gidoi bat agertzen da).

- Izenburua txertatu ondoren, irudiaren azpian testu bat agertuko da automatikoki X.Y irudia errotuluarekin, non X kapitulu zenbakia den eta Y, berriz, irudi zenbakia, kapituluaren duen posizioaren arabera.
- Oso garrantzitsua da aurreko testuari “Epigrafea: Irudiaren oina” estiloa esleitzea, dokumentuaren oin guztiek formatu bera izan dezaten. Ondoren, irudia edukia deskribatzen duen izenburua idatziko da irudi-oinean.




2.2. irudia. Irudi bati izenburua txertatzeko menua.

Irudi bat erreferentziatzeko, “Erreferentziak” menura joan eta “Epigrafeak” → “Erreferentzia gurutzatua” aukeran klik egingo da. Hori egitean, 2.3. irudian erakusten denaren antzeko menua agertuko da. Lehenik eta behin, “Erreferentzia mota” hautatuko da (“Irudia”, “Taula”, etab.) eta ondoren dagokion irudia. “Txertatu honen erreferentzia” puntuan, normalena “Etiketa eta zenbakiari soilik” aukeratzea izango da.



2.3. irudia. Erreferentzia gurutzatua txertatzeko menua.

Berez, erreferentzia gurutzatu bateko “X irudia”-ren lehen letra maiuskulaz agertuko da. Hau ingelesez idatzitako dokumentuetan egokia den arren, euskaraz idatzitako dokumentuetan erreferentzia gurutzatu batean irudia hitzak minuskulaz joan beharko du. Aldatzeko, eskuineko botoiarekin gurutzatutako erreferentziaren gainean (“X irudia”) klik egin eta “Editatu eremua” aukeratu behar da. Hori egitean, 2.4. irudian azaltzen den moduko menua irekiko da, bertan “Eremuen izenak” atalean “Ref” aukeratu behar da, ondoren “Formatuan” “Minuskulak”.



2.4. irudia. “Editatu eremua” menua: “Formatua” atalean “Minuskulak” aukeratu behar da.


Irudi berri bat edo gehiago sartzen direnean, irudi-zenbakiak eta haien erreferentzia gurutzatuak ez dira automatikoki eguneratzen pantailan. Elementu horien guztien eguneratzea behartzeko, metodorik eraginkorrena dokumentu osoa hautatzea da (Ctrl+E edo Ctrl+A Windowsen, Office hizkuntzaren arabera, edo Cmd+A macOSen), gurutzatutako edozein erreferentziaren gainean jartzea, eskuineko botoiarekin klik egitea eta “Eremuak eguneratu” aukeratzea.

Dokumentuan txertatzen diren irudi eta taula guztiak testuan erreferentziatu behar dira. Irudia edo taula lehen aldiz erreferentziatzen duen testutik ahalik eta gertuen egon dadin saiatu behar da. Ezinezkoa bada, irudi edo taula hori beti joango da lehen erreferentziaren ondoren.

2.4. Taulen erreferentzia gurutzatua

Taula bati erreferentzia gurutzatu bat txertatzeko, aurreko atalean deskribatutakoaren oso antzeko prozedura erabiltzen da. Lehenik eta behin, taula hautatu eta “Sartu epigrafea” aukeran klik egin behar da. Kasu horretan errotulua “Taula” izango da, eta posizioa “Hautatutako elementuaren gainean” (ikus 2.5. irudian). “Ados” sakatutakoan, goiburua “Epigrafea: Irudiaren oina” estiloan konfiguratuta geratuko da lehenespenez. Estilo hori aldatu eta “Taularen goiburua” jarri behar da, aurreko paragrafoaren eta taularen goiburuaren arteko tartea behar bezala konfiguratuta gera dadin, 1.2. taularen goiburuan ikusten den bezala.

Taula horri erreferentzia gurutzatu bat eransteko, “Taula” motakoa hautatu behar da, “Figura” motakoaren orde. Aurreko kasuan bezala, eremua editatu behar da erreferentzia gurutzatua minuskulaz ager dadin.




2.5. irudia. Taula bati izenburua txertatzeko menua.

2.5. Irudien aurkibidea eta taulen aurkibidea

